

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

IFK

G95122321

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Bilboko Arte Ederren Museoa bi erakunde independente batuta jaio zen: Bilboko Arte Ederren Museoa, 1908an sortua, eta Arte Modernoaren Museoa, 1924an zabaldua. 1987ko urtarrilaren 30ean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak Bilboko Arte Ederren Museoa, S.A. izeneko sozietatea eratu zuten denbora mugagaberako.

Ezohiko Batzar Unibertsalaren akordioz, 1991ko martxoaren 22ko bileran onartu zen Gizarte Estatutuak aldatzea, moldatzea eta bategitea Eusko Jaurlaritzaren Sozietatean sartu ahal izan zedin. Aldez aurretik, horretarako baimena eman zuen [339/1990 Dekretuak, abenduaren 28koak, EAeko Administrazioak Bilboko Arte Ederren Museoa S.A.n parte hartzea baimentzen duena.](#)

Azkenik, 2000ko azaroaren 15ean, Sozietate Anonimoan parte hartzen zuten hiru erakundeek, museoaren ondare eta antolakuntza arloko gaiak aztertu ondoren, eta eremu pribatuko pertsona fisikoak edota juridikoak haren jarduerarekin lotu ahal izateko, Hitzarmen bat sinatu zuten, non artikulatu zen zer-nola eratu Bilboko Arte Ederren Museoa sustatzeko eta garatzeko fundazio bat, eta [Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko martxoaren 29ko Agindu bidez inskribatu zen EAeko Fundazioen Erregistroan Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa.](#)

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

9102 Museo-jarduerak.

Fundazioaren xedea eta helburua

Bilboko Arte Ederren Museoa zuzentzea, mantentzea, zaintzea eta sustatzea, eta bertan jaso eta erakustea, modu unibertsal eta multidiziplinarrean, antzinako artea, arte modernoa eta garaikidea, gizartea artean hezteko.

Sailkapena kontabilitate nazionalen


Herri Administrazioak-Tokiko Korporazioak.

Fundazio-zuzkidura

90.152 €


Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 33,33
Bizkaiko Foru Aldundia	% 33,33
Bilboko Udala	% 33,33



Patronatuaren osaera

Izendatzen dituenak:	Patrono-kop./Guztira
EAEko Administrazio Orokorra	1/10
EITB	1/10
Metro Bilbao, S.A.	1/10
Bizkaiko Foru Aldundia	1/10
Bilboko Udala	1/10
Enpresa pribatuak eta finantza-erakundeak	5/10



2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	31.235.817 €
Ondare garbia	28.534.039 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	428.336 €
Batez besteko langile-kopurua	50,68

Sozietatearen helbidea

Museo plaza 2, 48009 Bilbo (Bizkaia).

Webgunea

www.museobilbao.com